<table>
<tr><td colspan="2" align="center"><u>EZ OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO EXTRAORDINARIO</u><br><br><u>2019KO ABENDUAREN 19A</u> / <u>18 DE FEBRERO DE 2019</u></td></tr>
<tr><td colspan="2" align="center">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td align="center"><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna<br><br><br><u>KONTUHARTZAILEA / INTERVENTOR</u><br><br>D. David García Castro jauna</td><td> <u>ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE</u> D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE).<br><br> <u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u> D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).<br><br> <u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u> Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Iñaki Penedo Eubieta jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Eva Juez Garmendia andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. María Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi).</td></tr>
</table>

Eibarko hirian, 2019ko otsailaren 18an, arratsaldeko seiak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ez ohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a 18 de febrero de 2019 y siendo las dieciocho horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/-as señores/as anteriormente menciona-dos/as.

**Alkate-udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente.

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**ATAL BAKARRA.-**

**ÚNICO.-**

**Eibarko Udalaren aurrekontu orokorra 2019ko jardunaldirako.**

**Presupuesto general del Ayuntamiento de Eibar para el ejercicio 2019.**

**Alkate-udalburu jaunak** azaldu du Ogasun eta Ondarearen Lan batzordean onartu egin zela aurrekontu-zirriborroa, Eibarko EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen arteko akordioa sartuta. Era berean, baztertu egin ziren Euskal Herria Bildu eta Irabazi udal taldeek aurkeztutako osoko zuzenketak, bai eta azken talde horren zuzenketa partzialak ere; denak ere boto partikular gisa sartu dira

El **Sr. Alcalde-Presidente** explica que en la Comisión de Trabajo de Hacienda y Patrimonio se aprobó el borrador del presupuesto con la incorporación del acuerdo entre los grupos municipales de Eibarko EAJ-PNV y PSE-EE. Del mismo modo, se rechazaron las enmiendas a la totalidad presentadas por los grupos municipales de Euskal Herria Bildu e Irabazi, así como las enmiendas parciales de este último

eztabaidatuak eta bozkatuak izan daitezen bilkura honetan.

grupo; todas ellas se incorporan como votos particulares para su debate y votación en esta sesión plenaria.

Eztabaidaren antolamenduari dagokionez, proposatzen du talde bakoitzak parte har dezala ordezkaritza txikienetik handienera 15 minutuz lehen txandan eta beste 10 minutuz erantzuteko txandan. Ondoren, boto partikularren bozketa egingo litzateke eta, hala balegokio, aurrekontu-proposamena bozkatuko litzateke, zeinak Udalaren kontuak jasoko lituzkeen eta baita entitate autonomoenak ere, hala nola Kirol Patronatua, "Juan Bautista Gisasola" Musika Eskola eta San Andres Egoitza Fundazio Publikoa.

En lo que a la ordenación del debate se refiere, propone que cada grupo intervenga, de menor a mayor representación, por espacio de 15 minutos en un primer turno y otros 10 minutos en el turno de réplica. Posteriormente, se pasaría a la votación de los votos particulares y, en su caso, la propuesta de presupuesto que incluiría las cuentas tanto del Ayuntamiento como de los organismos autónomos Patronato Municipal de Deportes, Escuela de Música “Juan Bautista Gisasola” y Fundación Pública Residencia San Andrés.

**Mendicute Rodriguez** jaunak dio, berak ulertu duenez, eztabaida bakarra egongo dela aurrekontu-proiektuari buruz, boto partikularrak barne.

El **Sr. Mendicute Rodriguez** entiende que se va a producir un debate único sobre el proyecto de presupuesto que incluiría los votos particulares.

**Alkate-udalburu jaunak** erantzun du hala izango dela.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que así será.

**Aguirre Unceta andreak** argitu nahi du zerk eraman duten Irabazi udal taldea 2019ko aurrekontuei osoko zuzenketa aurkezteko azken erabakia

La **Sra. Aguirre Unceta** desea aclarar la secuencia que ha llevado al grupo municipal de Irabazi a la decisión final de presentar una enmienda de

hartzera, politikoki negoziazioa deritzon errelato kronologikoa eginez, eta, kasu honetan funtsezko elementu bat falta izan duena: ados ez dauden bi alderen arteko azken elkarrizketa.

totalidad a los presupuestos de 2019 mediante la exposición del relato cronológico de lo que en términos políticos se llama negociación y que, en este caso, ha carecido del elemento fundamental: un diálogo final entre dos partes en desacuerdo.

Gertaerak honelaxe izan dira: Behin 2019rako aurrekontu-zirriborroa aurkeztuta, eta taldeei ekarpenak aurkezteko emandako epearen barruan, Irabazi udal taldeak, beste behin ere, adierazi zuen beren babesa Eibarren kalean bizi direnentzako aterpe bat jartzeko borondate politikoaren mende zegoela, nahiz eta ez izan derrigorrezkoa Ipuruako merkatua izatea aterpe hori. Berriz ere gorarazi zitzaien erabaki hori eskualdeko zortzi alkateek osatutako Udalen arteko Mahaiak onartu behar zuela, nahiz eta, azkenean, *"bost lerrotan"* laburbildu zen Alkatetzaren erantzuna.

Los hechos han tenido el siguiente desarrollo: una vez presentado el borrador de los presupuestos para el ejercicio 2019 en el mes de noviembre, y dentro del plazo señalado a los grupos para que presentara sus aportaciones, el grupo municipal de Irabazi indicó, una vez más, que su apoyo estaba condicionado a la voluntad política de poner en marcha una ubicación en Eibar de un refugio de los sintecho aunque no tuviera que pasar necesariamente por la conversión del mercado de Ipurua en esta casa de acogida. Se les recordó de nuevo que esta decisión debía ser aprobada por la Mesa Multimunicipal compuesta por los ocho Alcaldes de la comarca, aunque, finalmente, se resumió en *"cinco líneas"* la respuesta de la Alcaldía.

Atzera ere Eibarko gabeziei buruzko gizarte zerbitzuen mapa betetzeko erantzukizun politikoa saihesteko asmo orokor batzuen deklarazioen berri izan ondoren, Irabazi udal taldea Harrera Zerbitzu honen alde jarri zen berriro, beste edozein kokaleku onartzeko prest egonik,

A partir de tener conocimiento de una declaración de intenciones nuevamente generalista para eludir la responsabilidad política del cumplimiento del mapa de servicios sociales referido a las carencias de Eibar, el grupo municipal de Irabazi volvió a posicionarse a favor de

zehatza izatekotan eta gaurko aurrekontuen bilkura baino lehen aurkeztekotan. Orduko hartan, bere taldeak, hitzez hitz, hauxe adierazi zuen.

*“Baldin eta Udalak ez badu onartzen gure proposamena —"etxerik gabekoentzako" aterpe falta dela-eta dagoen desadostasunaren aurrean, azken hiru urte hauetan luzatu dena, gure soluzioa aurkeztea eskualdeko mahaiari— onartuko genuke premia horri erantzungo liokeen beste kokaleku bat Eibarren, betiere proposamena zehatza izanez gero eta Irabaziri aurrekontu-bilkuraren aurretik eskainiz gero.”*

Zehaztu du, beren zuzenketa Erregistroan aurkeztean, “Mercado vs Refugio” aurreproiektua erantsi ziotela zortzi alkateetako bakoitzari, proposamena eta haren kostu ekonomikoa gertutik ezagutu zezaten. PSE-PSOE udal taldearen alternatibari egindako proposamenean erantsitako ohar gisa berariaz adierazitakoa gorabehera —zeinak, lehen adierazi bezala, ez zuen batere erantzunik izan Alkatetzaren aldetik—, zabalkundera bideratutako zortzi kopiak atxikiak geratu dira, beren helmugara iritsi gabe.

este Servicio de Acogida, aceptando cualquier otra ubicación con tal de que fuera muy concreta y presentada antes del pleno de presupuestos de hoy. En aquel momento, su grupo expresó textualmente.

*“En el supuesto de que el ayuntamiento no acepte nuestra propuesta de presentar a la mesa comarcal nuestra solución al desacuerdo por la falta de refugio para los “sintecho”, prolongado a lo largo de estos tres últimos años, aceptaríamos también otra ubicación en Eibar que diera respuesta a esta necesidad, siempre que fuera una propuesta muy concreta y ofrecida a Irabazi antes del pleno de presupuestos.”*

Precisa que, al presentar su enmienda en el Registro, adjuntaron el anteproyecto del “Mercado vs Refugio” para ser entregado a cada uno de los ocho Alcaldes, de modo que pudieran conocer de cerca la propuesta y su coste económico. A pesar de lo indicado expresamente como nota adjunta en su propuesta a la alternativa del grupo municipal del PSE-PSOE, que como ha señalado anteriormente no tuvo ninguna respuesta por parte de Alcaldía, las ocho copias destinadas a su divulgación han quedado retenidas sin cumplir su destino.

Adierazi du Irabazi udal taldea ohituta dagoela aintzakotzat hartua ez izatera, eta kontziente dela deseroso gertatzen den proposamen baten aurrean eta proposamenaren ezezkoaren aurrean —argudiatzen zaila dena— errazena isiltasuna dela. Era horretan, saihestu egiten da egoera konprometituei aurre egiteko erantzukizuna egoera horiek konpontzeko borondate politikorik ez dagoenean.

Manifiesta que el grupo municipal de Irabazi está acostumbrado ya a ese ninguneo y es consciente de que lo más fácil ante una propuesta que resulta incómoda y su negativa difícil de argumentar es el silencio. De esta forma, se elude la responsabilidad de hacer frente a situaciones comprometidas cuando no hay voluntad política para resolverlas.

Proiektu horren alternatiba "Neguko Dispositiboa" da, gaur goizean bertan bozkatu dena, gizarte-zerbitzuen multzoaren barruan zerbitzu berri bat bailitzan. **Aguirre andreak** dio bere garaian Ipuruako komentuan kokatu nahi izan zela, baina desjabetzea zela-eta gauzatzeko ezintasunaren aurrean Ipuruako merkatua aipatu zen ondoren —duela gutxi hutsik geratu dena, Osasun Publikoa Ospitale berrira pasatzean—, eta orain Eibarko edozein lekutan kokatzea onartzen du, betiere gaueko eta eguneko zerbitzu bat izan eta gizatasun eta duintasun baldintzak betetzen ditu.

La alternativa a este proyecto, que en su día se pretendió ubicar en el convento de Ipurua, y ante la imposibilidad de ejecutarlo debido a su expropiación, se trasladó al mercado también de Ipurua -recientemente vacío al pasar Salud Pública al nuevo Hospital- y, ahora, con su aceptación de situarlo en cualquier lugar concreto de Eibar, con tal de que responda a un servicio nocturno y diurno en condiciones de humanidad y dignidad, es el "Dispositivo Invernal" que esta misma mañana se ha votado como un servicio nuevo dentro del conjunto de los servicios sociales.

Irabazik duela hiru urte bere "proiektu izar"tzat aurkeztu zuenaren aurrean emandako aukera honek harekin duen antzekotasun bakarra gaueko harrerarena izatea baino ez da. Ostatu emateko baldintzek hotz handiko alarma dagoen egunei (zeropetik edo elurteekin)

Esta contrapartida a lo que Irabazi ideó hace tres años como su "proyecto estrella" no tiene en común con aquel proyecto más que la acogida nocturna. Las condiciones de alojamiento responden solo a los días con alarmas meteorológicas de frío intenso (bajo cero

bakarrik erantzuten diete eta ordutegia oso mugatua da: sarrera-ordua oso berandu eta irteera-ordua oso goiz. Baina ulergaitzena da espazio berean elkarrekin biziaraztea —desberdintasun bakarra gaueko/eguneko erabilera— hain desberdinak diren bi kolektibo, etxegabekoak eta ikasleak, koexistentzia horrek duen arriskuarekin. Irabazi udal taldeak ez du soluzio hori onartzen, ez bakarrik harrera ez delako jarraitua eta egokia, baita ere jardueraren markoa ez delako behar bestekoa eta gainera desegokia delako. Ez du ulertzen berek proposatzen zuten aterperako alkateen eskualdeko mahaiaren kontsentsua behar izatea eta neguko dispositiboa udal bilkuratik bakarrik pasatu behar izana, zerbitzu hori ere Debabarrena osorako baita.

Nolanahi ere, bere taldeak uste du ahalegin guztia egin duela gogo biziz eta kritika eraikitzailez Eibar herri abegitsu, atsegin, ireki eta integratzaileago bat izan dadin, betiere begirada pertsona zaurgarrienetan jarriz. Bere ahalegina beti izan da etorkizun hobe baterako baldintzak sortzea herriaren ondarea jasoko dutenentzat; herri bat, zeina —orografia aldekoago batek ahalbidetuko lizkiokeen baldintza hobeago batzuk ez baditu ere—, beti borrokatu den eibartarrak igarobide

o con nevadas) y con un horario muy restringido y tardío de entrada y muy tempranero de salida. Pero lo más incomprensible es que se quiere hacer convivir en el mismo espacio -con la única diferencia de uso nocturno/diurno- a dos colectivos tan diferentes como son los transeúntes y los estudiantes, con el riesgo que conlleva esa coexistencia. El grupo municipal de Irabazi no aprueba esta solución porque, no solo carece de una continua y adecuada acogida, sino porque el marco de desarrollo de la actividad resulta totalmente insuficiente e inadecuado. Le resulta incomprensible que para el refugio que proyectaban era necesario el consenso en la mesa comarcal de Alcaldes y el dispositivo invernal haya necesitado solamente el paso por el Pleno, siendo también un servicio para toda Debabarrena.

De cualquier modo, su grupo tiene la conciencia de haber colaborado con todas sus posibilidades, su entusiasmo y su crítica constructiva en el intento de hacer de Eibar una ciudad más acogedora, amable, más abierta e integradora, con la mirada puesta siempre en los más vulnerables. Su empeño sigue siendo el de crear las mejores condiciones de un futuro mejor para los que van a recibir el patrimonio de un municipio que, a pesar de carecer de

eta egonleku batean kokatzeko, non lehentasuna emango zaion pertsonari beste ezein balioren gainetik. Gure aurretik izan zirenen legatuak eta gure gazteentzat etorkizun hobea bideratu dezakeenaren diseinuak animatu eta adoretzen dute lanean jarraitzeko guztion ongizatearen alde.

las mejores condiciones que una orografía más favorable le hubiera permitido, ha luchado por situar a las eibarresas e eibarreses en un lugar de tránsito y estancia donde se prime a la persona por encima de cualquier otro valor. El legado recibido de los que nos precedieron y el diseño de lo que puede facilitar un futuro mejor para nuestra gente joven, les animan e impulsan a seguir trabajando por el bienestar de todas y todos.

Amaitu du esanez beren apustua, talde ekologista diren aldetik, beti izango dela "***berdea***", kontzeptu hori ulertuta gozatzeko eta topo egiteko leku gisa, eta baita naturagune eta gizatasun leku gisa ere. Pozik daude, Udal honetan izan duten espazio urritik bada ere, ahaleginak egin dituztelako herritar hauek merezi duten Eibar bat lortzen. Etorkizunak esango du ea ahalegin eta borroka horrek izan duen islarik desiratutako hobekuntzan.

Finaliza su intervención, expresando que su apuesta como grupo ecologista seguirá siendo siempre ***lo verde***, entendido como espacio de disfrute, de encuentro, de naturaleza y de humanidad. Sienten la satisfacción de haber hecho posible, en la medida de su escaso espacio en este Ayuntamiento, un Eibar más acorde con lo que esta ciudadanía se merece. El futuro esclarecerá si este empeño y esta lucha han tenido un reflejo en la mejora deseada.

**Mendicute Rodriguez jaunak** hitza hartu du esanez Eibarrek ezin duela utzi urteak pasatzen; izan ere, bere taldeak agintaldi honetan zehar azpimarratu dituen erronkek hor jarraitzen dute oraindik. Hala,

El **Sr. Mendicute Rodríguez** inicia su intervención afirmando que Eibar no puede dejar pasar los años puesto que los retos de los que su grupo ha venido advirtiendo a lo largo de este mandado

biztanleko izenpetzen diren kontratuen kopurua eskualdean eta lurralde historikoan edo Autonomia Erkidegoan izenpetzen direnak baino % 7 baxuagoa da; arlo horretan suspertze azkarrago bat egon beharko litzateke gure inguruko datuekin parekatzeko. Azpimarratu beharreko beste datu bat da gure herriko errenta per capita % 25 baxuagoa dela batezbestekoa baino, alegia, eibartarrek 7.500 euro gutxiago jasotzen dute gorago aipatutako eremuetako batezbestekoa baino. Horren atzean produkzio-egitura bat dago erabakiak hartzera behartzen duena, nahiz eta egoera ezingo den epe motzera erabat aldatu.

aún permanecen. Así, el número de contratos por habitante resulta un 7% inferior en comparación con los que se suscriben tanto en la comarca, como en el territorio histórico y la Comunidad Autónoma; en esta materia debería darse una recuperación más ágil para equiparse a los datos de nuestro entorno. Otro dato a destacar es que la renta per cápita de nuestra ciudad es un 25% inferior a la media, es decir, la ciudadanía eibarresa recibe 7.500 euros menos que la media de los ámbitos anteriormente indicados. Todo ello responde a una estructura productiva que obliga a adoptar decisiones, aunque la situación no pueda modificarse por completo a corto plazo.

Zerbitzu-establezimenduek kontratu guztien % 82 hartzen dute, eta industriakoak apenas iristen diren % 9ra, industria horiek 9 pertsonatik beherako batezbesteko tamainakoak izanik; zehatzago: enpleguaren % 42 tamaina horretako enpresek sortzen dute. Langabezia-tasa urtarrilean % 12,22 izan zen eta, zentzu horretan, adierazle hori Autonomia Erkidegoaren berbera izango balitz, 351 pertsona gutxiago egongo lirateke langabezian.

Los establecimientos de servicios representan el 82% del total, mientras que los industriales apenas llegan al 9%, con un tamaño medio inferior a 9 personas; más en concreto, el 42% del empleo lo generan las empresas de este tamaño. La tasa de desempleo alcanzó en el mes de enero el 12,22 % y, en este sentido, si dicho indicador fuera el mismo que el de la Comunidad Autónoma 351 personas menos se encontrarían en situación de desempleo.

Datu horiek guztiak eta gehiago daude jasota Eibarko Plan Estrategikoan,

Todos estos datos y algunos más se contienen en el Plan Estratégico de

bilkura honetan oraindik eztabaidatu ez dena.

Adierazi du diagnostikoa partekatua izan daitekeela, baina talde bakoitzak baloratu behar duela zein den bere erantzukizuna eta zeregina Udalean. Harridura azaldu du zorpetze-mailaren % 1,95aren aurrean, izan ere, Toki Ogasunen Foru Arauak % 25eko muga bat ezartzen baitu; edo % 17,87ko zorpetzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Instrukzioaren 2. arauak 2019rako % 72raino iristea ahalbidetzen duenean.

Horren harira, aldarrikatu nahi du bere taldea izan dela Udalaren inbertsio-ahalmena suspertzeko proposamenak egin dituena, eta, aldi berean, bat dator Plan Estrategikoaren funtsezkoenarekin.

Diagnostikoa partekatu barik ezin da soluzio partekaturik eman, eta hori posible izan dadin herriaren egoerari buruzko eztabaida bat proposatzen du, aurrekontuari dagokionaz aparte.

Aurrekontu honen negoziazio-faseari dagokionez, Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaleak azaldu du, lehenik, ebaluatu egin dutela iaz PSE-EE udal taldearekin lortutako hitzarmenaren betetze-maila, eta 6 klausula eta 43 zuzenketetatik hurrenez hurren 4 eta 21 ez

Eibar que aún no se ha debatido en este Pleno.

Indica que el diagnostico puede ser compartido, pero cada grupo debe valorar cuál es su responsabilidad y labor en el Ayuntamiento, pero manifiesta su incredulidad ante el 1,95 % de nivel endeudamiento cuando la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales fija un límite del 25 % o ante el 17,87 % de deuda cuando la regla 2 de la Instrucción de la Diputación Foral de Gipuzkoa para 2109 permite llegar hasta el 72%.

En este contexto, reivindica que ha sido su grupo el que ha realizado propuestas para revitalizar la capacidad inversora municipal y, al mismo tiempo, comparte lo fundamental del Plan Estratégico.

Sin un diagnóstico compartido no hay soluciones compartidas y para hacer eso posible propone la celebración de un debate sobre el estado de la ciudad, al margen del correspondiente al presupuesto.

En lo que a la fase de negociación de este presupuesto se refiere, el portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV explica que, en primer lugar, han evaluado el grado de cumplimiento del pacto alcanzado el pasado año con el grupo municipal del PSE-EE y, en

direla bete; hau da, % 51eko urratze-maila egon da.

concreto, de 6 cláusulas y 43 enmiendas se han incumplido 4 y 21, respectivamente, lo que supone un grado de cumplimiento del 51 %.

Diagnostiko horretatik abiatuta, bere taldeak ezinbesteko baldintzatzat jo zuen aurrekontu-akordiorik ez sinatzea, ez baziren 2019rako proiektuan sartzen iaz gauzatu ez ziren jarduketak; jarrera horri eustea izan da negoziazioak luzatu dituena. Planteamendu horrekin lortu nahi da hitzartutakoa betetzea eta berritasun batzuk sartzea, hala nola: 47.000 euroko partida bat sartzea Rialto zinema txukuntzeko eta, bestetik, garapen ekonomikoaren arloko jarduketak sendotzea. Neurri horiez gain, beste batzuk hartu beharko lirateke, ez hain kopuru handikoak, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoak, hala nola baserri-auzoetako jaiak eta Hankamotz Bertso Eskolarendako dirulaguntza.

A partir de este diagnóstico, su grupo fijó como condición indispensable que no habría acuerdo presupuestario sino se incluían en el proyecto para 2019 las actuaciones no ejecutadas en el pasado ejercicio; la persistencia en esa postura es lo que ha prolongado las negociaciones. Con este planteamiento se trata de cumplir lo pactado y de incluir algunas novedades, como son: una partida de 47.000 euros para el adecentamiento del cine Rialto y el reforzamiento de actuaciones en el área de desarrollo económico. A estas medidas habría que añadir otras que, aunque de escasa cuantía, no son menos importantes, tales como las fiestas rurales y la subvención a Hankamotz Bertso Eskola.

Hala, euren politika-ekimena eraikitzearena izan da, hau da, ahalegin politikoak egitea bestela gertatutako ez zen emaitza bat lortzeko. Nolanahi ere, argitu du horrek ez duela esan nahi gobernu-taldeak aurkeztutako aurrekontua onartzen dutenik, baina, maiatzaren 26ko udal hauteskundeen ondoren bere taldea Eibarko Alkatetzara iritsiko balitz, martxan jar litezke luzaroan blokeatuta egon diren

Así, su actuación política ha sido la de construir, es decir, realizar esfuerzos políticos para alcanzar un resultado que de otra manera no se habría producido. No obstante, aclara que ello no significa que aprueben el presupuesto presentado por el equipo de gobierno, pero, si tras las elecciones municipales del próximo 26 de mayo, su grupo accediera a la Alcaldía de Eibar,

ekimenak, hala nola plan estrategikoaren garapena, polo teknologikoaren garapena, Matxarian lurrak erosteko erabiltzen ez den higiezin-ondarea saltzea, igogailuak jartzea Ubitxan, San Kristoalen, Jardiñetan, Mekolan, Amañan eta Birjiñapen, espaloiak zabaltzea Urkizu eta Errebalen artean, Altzubarren frontoia eraberritzea, bainu publikoak egitea Txantxa Zelaian eta San Juanen, edo Julian Etxebarriaren eraldaketa.

podrían ponerse en marcha iniciativas que han estado demasiado tiempo bloqueadas como es el despliegue del plan estratégico, el desarrollo del polo tecnológico, la venta de patrimonio inmobiliario en desuso para la compra de terreno en Matsaria, la instalación de ascensores en Ubitxa, San Kristobal, Jardiñeta, Mekola, Amaña y Birjiñape, la ampliación de aceras entre Urkizu y centro de Errebal, la reforma del frontón de Altzubarren, baños públicos en Txaltxa-Zelai y San Juan o la transformación de la calle Julian Etxeberria.

Hala ere, adierazi du ez duela uste egitasmo horiek hemendik eta udal hauteskundeetara bitartean egingo direnik, gobernu-taldeak ezintasuna erakutsi baitu akordioak gauzatzeko, eta gaur onartzen den aurrekontua, kasurik onenean ere, ez litzatekeelako martxora arte indarrean sartuko. Dena den, Eibarko gizarteak aukera izango du egindakoa baloratzeko eta datorren lau urteetarako zer nahi duen aukeratzeko. Beraz, bere taldeak herritarren konfiantza lortuz gero, gobernatzeko behar diren tresnak eskura izan nahi dituzte lehen egunetik eta aurrekontua da tresna garrantzitsu horietako bat, kontuak antolatzen baititu egitasmoak gauzatu eta baliabideak banatzeko. Baina kasu honetan, kontuan

No obstante, afirma que no tienen confianza alguna en que estos proyectos se lleven a cabo de aquí al día de las elecciones municipales, puesto que el equipo de gobierno ha demostrado su incapacidad para ejecutar acuerdos y porque el presupuesto que hoy se apruebe no entraría en vigor, en el mejor de los casos, hasta el próximo mes de marzo. De todas formas, la sociedad eibarresa tendrá la oportunidad de valorar lo realizado y elegir aquello que desea para los próximos cuatro años. Por tanto, en el caso de que su grupo obtenga la confianza de la ciudadanía, desean contar con las herramientas necesarias para gobernar desde el primer día y el presupuesto es una de las más

izan behar da dagoeneko agortu dela jardunaldiaren zati bat eta diru-kontu horiek indarrean sartzen direnerako, jardunaldiaren % 25 egongo dela agortuta.

importantes, ya que organiza las cuentas para poder ejecutar diferentes proyectos y distribuir los recursos. Pero, en este caso, hay que tener en cuenta que ya se ha consumido una parte del ejercicio y para cuando estas cuentas entren en vigor habrá transcurrido el 25 % del mismo.

Hori guztia ikusita, Eibarko EAJ-PNV udal taldearen bozeramaleak eskatu du aurrekontua jardunaldi bakoitzeko urtarrilaren 1 baino lehen onar dadila behin betiko, dagoeneko beste udal batzuetan gertatzen den bezala, esaterako, Donostian, nahiz eta horretarako ekainean aurkeztu beharko den, udan zehar landu eta azaroan onartu ahal izateko.

A la visto de todo ello, el portavoz del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV reclama que el presupuesto se encuentre definitivamente aprobado antes del 1 de enero de cada ejercicio, como ya ocurre en otros Ayuntamientos como el de San Sebastián, aunque para que eso sea posible es necesario que se presente en el mes de junio para poder trabajarlo a lo largo del verano y aprobarlo en el mes de noviembre.

Gogorarazi du hurrengo toki-hauteskundeak egin ondoren, aukeratzen den alkatea berehala hasi beharko dela 2020rako aurrekontu-proiektua egiten eta orduan ez dela aukerarik izango kreditu-aldaketak egiteko, ez delako edukiko gobernatzeko tresnarik. Baldin eta bere taldea balitz Alkatetza eskuratuko lukeena bereak ez diren aurrekontu luzatuak izango lituzke, eta horrek zailagoa egino luke gobernatzeko zeregina.

Recuerda que una vez que se celebren los próximos comicios locales, el Alcalde que resulte elegido deberá ponerse inmediatamente a elaborar el proyecto de presupuesto del ejercicio 2020 y entonces no habrá oportunidad realizar modificaciones de crédito porque no se dispondrá de la herramienta necesaria para gobernar. En el caso de que fuera su grupo quien ostentase la Alcaldía, se encontrarían con unas cuentas prorrogadas que no son las

suyas, dificultándose así la tarea de gobernar.

Negoziazio-prozesuan zehar, bitxia gertatu da bere taldea izatea gobernu-taldearen aliatu posible bakarra, Euskal Herria Bildu udal taldeak uko egin diolako negoziatzeari zuzenketa partzialik ez aurkeztean, eta Irabazi udal taldeak marra gorri bat markatu duelako, zeina, harrigarriki, gobernu-taldeak ez duen gainditu nahi izan, baina bere taldeak konpromisoa hartzen du proiektu horrekin.

A lo largo del proceso de negociación, se ha dado la curiosa situación de que su grupo ha sido el único aliado posible del equipo de gobierno, ya que el grupo municipal de Euskal Herria Bildu se ha negado a negociar al no presentar enmiendas parciales y el grupo municipal de Irabazi ha marcado una línea roja que, sorprendentemente, el equipo de gobierno no ha querido superar, aunque su grupo se compromete con ese proyecto.

Testuinguru horretan, EAJ-PNVk aurkezten zitzaion aukeraz baliatu nahi izan zuen, mahai gainean jarriz azkeneko aurrekontu-hitzarmenean bete ez ziren akordioak; udal gobernua eskuratzen badute aurten gauzatu nahi dituzten asmoak; gainera, 342.000 euro gehituko lituzkete enpresak hazteko eta enplegu gehiago eta hobea sortzeko, horrela, Eibar hobe bat lortu bizitzeko eta lan egiteko, azken finean, Eibar indartsu bat.

En este contexto, desde EAJ-PNV se quiso aprovechar la oportunidad que se les presentaba, poniendo sobre la mesa los acuerdos incumplidos del último pacto presupuestario, proyectos que desean llevar a cabo para este año si alcanzan el gobierno municipal, añadiendo 342.000 euros para fomentar que las empresas crezcan y generan más y mejor empleo y conseguir así un Eibar mejor para vivir y trabajar, un Eibar fuerte, en definitiva.

Iritsi da une erabakigarria eta, hortaz, berak egiten duen galdera da ea akordio hau gabe Rialto zinema txukunduko litzatekeen, ea landa-garapenerako inbertsio-ahalmena berreskuratuko litzatekeen, bultzatuko

Ha llegado la hora de la verdad y, por tanto, la pregunta que se formula a sí mismo es si, en ausencia de este acuerdo, se adecentaría el cine Rialto, se recuperaría la capacidad inversora para el desarrollo rural, se impulsaría

litzatekeen behingoz plan estrategikoaren garapena, ea hobetuko litzatekeen Altzubarren frontoia edo bultzada txiki bat emango litzaiokeen Hankamotz Bertso Eskolari.

Aitortzen du akordio hau ezingo dela bete agintalditik geratzen den denboran eta, hortaz, hurrengo gobernu-taldea izango dela aurrera eramango duena.

Bere iritziz, etorkizuna ezin da eraiki inposizio-blokeo-inposizio estrategia batekin, baizik eta guztion arteko lankidetzarekin, eta nabarmendu du bere taldeak akordioan sartu dituen zuzenketek inbertsio errealak handitzea eragiten dutela, kontuan hartuta bere estiloa ez dela gastu arruntak justifikazio barik handitzearena. Horren harira, kontuan hartu beharko litzateke Kontu-hartzaile jaunaren txostena, ohartarazten duena obligazioa dagoela plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko aurrekontu-egonkortasun helburua urratu egin baita.

Hitz batean, hain garrantzizkoa den dokumentuari buruzko estrategia politikoa eta erakundearen egonkortasunari eta gobernagarritasunari eragiten diona ezin da “*tripetatik*” diseinatu, baizik eta “*burutik eta bihotzetik”* eta, horregatik, aukeratu dituzte aurten egitea ezinbestekotzat

definitivamente el desarrollo del plan estratégico, se mejoraría el frontón de Altzubarren o si se daría un pequeño impulso a Hankamotz Bertso Eskola.

Reconoce que este acuerdo no va a poder cumplirse en el tiempo que resta de mandado y que, por tanto, será el próximo equipo de gobierno quien lo lleve a cabo.

En su opinión, el futuro no se puede construir desde una estrategia de imposición-bloqueo-imposición sino de colaboración entre todos y destaca que las enmiendas que su grupo ha conseguido introducir en el acuerdo hace que crezcan las inversiones reales, teniendo en cuenta que su estilo no es el de incrementar los gastos corrientes injustificadamente. A este respecto, habría que tener en cuenta el informe del Sr. Interventor en el que advierte sobre la obligación de aprobar un plan económico-financiero al incumplirse el objetivo de estabilidad presupuestaria.

En definitiva, la estrategia política sobre un documento tan importante, y que afecta a la estabilidad y gobernabilidad de la institución, no puede diseñarse desde *“las tripas”* sino desde *“la cabeza y el corazón”* y, por esta razón, han optado por cuestiones cuya

jotzen diren kontuak, nahiz eta nahiago izango zuketen dagoeneko gauzatuta egotea.

ejecución en el presente ejercicio consideran imprescindibles, aunque habrían deseado que ya estuvieran culminadas.

Azkenik, aurrekontu-espedientean jaso den Alkatetzaren memoriari dagokionez, uste du zentzugabekeria ugari dituela, baina balorazio politikoak egitea baino nahiago du zenbakiak edo kopuruak baloratzea, diru-kopuruak izan baitira bere taldearen botoa erabaki dutenak.

Por último, respecto a la memoria de Alcaldía contenida en el expediente presupuestario, considera que contiene demasiados despropósitos, pero antes que por valoraciones políticas opta por los números, que son los que han decantado el voto de su grupo.

**Lamarain Cobo andreak** azaldu du amaitu dela udal agintaldia eta PSE-EEren gobernu-taldeak jarraitzen duela eibartarren premiei erantzuteko aurrekontu bat aurkeztu barik. Zentzu horretan, Euskal Herria Bildu udal taldeak beste aurrekontu mota bat eskatu izan du eta, hala, agintaldiaren hasieran zuzenketak aurkeztu zituzten hainbat proiektu aurrera ateratzea ahalbidetu zituzten zuzenketak. Baina, oharturik lorpen hori ez zela nahikoa, 2017tik proposamen anbiziotsuagoak aurkeztu zituzten gauzatzera iritsi ez zirenak.

La **Sra. Lamarain Cobo** manifiesta que ha transcurrido el mandato municipal y el equipo de gobierno del PSE-EE continua sin presentar un presupuesto que responda a las necesidades de la ciudadanía eibarresa. En ese sentido, el grupo municipal de Euskal Herria Bildu ha venido exigiendo otro tip de presupuesto y, asi, al principio de este mandato, presentaron enmiendas que hicieron posible llevar a cabo diferentes proyectos. Pero, siendo conscientes de que ese logro no era sufiente, a partir de 2017 presentaron propuestas más ambiciosas que no llegaron a fructificar.

2019rako aurrekontu-proiektuaren edukia aztertuta, ondorioztatu dute biztanleriaren premiei erantzun nahi izanez

Una vez analizado el contenido del proyecto del presupuesto para el ejercicio 2019, han llegado a la

gero beharrezkoa dela proiektu hori alde batera lagatzea eta berri bat diseinatzea.

conclusión de que si se quiere dar respuesta a las necesidades de la población es necesario dejar a un lado ese proyecto y diseñar uno nuevo.

Halaber, ondorio bera atera liteke 2018ko udal aurrekontuarekiko, izan ere, ez da batere aldatu PSE-EE udal taldearen estiloa (ezta Eibarko EAJ-PNV udal taldearena ere), alegia: obra ugari inbertsio nagusitzat, nahiz eta asko eta asko bidean geratu udal gobernuaren gestio-gaitasun faltagatik.

Así mismo, la misma conclusión podría extraerse respecto al presupuesto municipal correspondiente al ejercicio 2018, puesto que el estilo del grupo municipal del PSE-EE no ha variado lo más mínimo (tampoco el del grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV), a saber: numerosas obra como inversión principal aunque muchas se queden en el camino por la falta de capacidad de gestión del gobierno municipal.

Baina bere taldea benetan kezkatzen duen gaietako bat da Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuen Mapa garatzeko emandako dirulaguntza ez dela osorik gastatu, hortaz, jakin nahi dute zertan erabili den diru hori.

Pero una de las cuestiones que realmente preocupa a su grupo es que la subvención concedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del Mapa de Servicios Sociales no se ha ejecutado en su totalidad, por lo que desea saber cuál ha sido el destino de ese dinero.

Aurrekontu-proiektuari dagokionez, Euskal Herria Bildu udal taldearen bozeramaleak azpimarratu nahi du bere osoko zuzenketarekin lehen sektoreak eurentzat duen garrantzia eta zer leku gutxi duen gobernu-taldearentzat nabarmendu nahi izan dutela eta ; izan ere, jarduera horien etorkizuna bermatzeko lehenik haien oraina ziurtatu behar da, eta proiektu

En lo que al proyecto de presupuesto se refiere, la portavoz del grupo municipal de Euskal Herria Bildu desea destacar que con su enmienda a la totalidad han querido resaltar la importancia que para ellos tiene el sector primario y lo poco que cuenta para el equipo de gobierno, puesto que, para garantizar el futuro de estas actividades,

honetan ez dago horretarako inolako neurririk.

es necesario, en primer lugar, asegurar su presente, y en este proyecto no hay ninunga medida dirigida a tal fin.

EAJ-PNV / PSO-EE hitzarmenak ere ez du ekarpenik egiten zentzu horretan, trikimailu bat ezkutatzen duelako negoziatzeko moduan. Esaterako, gobernu-taldearen proposamenean, auzoetako bideetarako partida 100.000 eurotan murriztu zen, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak kopuru horretako zuzenketa bat sartu ahal izateko; modu horretan, erraza da negoziatzea, baina baserritarrak ere konturatu dira jarduteko modu horretaz.

El pacto EAJ-PNV / PSE-EE tampoco aporta nada en este sentido puesto que esconde una forma de negociar con trampas. Por ejemplo, en la propuesta del equipo de gobierno, la partida destinada a los caminos de los barrios se redujo en 100.000 euros para que el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV pudiera introducir una enmienda por esas misma cantidad; de esta forma resulta fácil negociar, pero las baserritarras ya se han dado cuenta de esa forma de proceder.

Beste gai bat bere taldearentzat kezkagarria dena Hirigintza Antolamenduaren Plan Nagusia idaztea da; hain zuzen, 2018rako diagnostikoa idatzita egon behar zen dagoeneko, baina orain arte ez da inolako testurik aurkeztu eta berak galdetzen du zeintzuk izan daitezkeen udal gobernuaren arrazoiak kontu hau hainbeste luzatzeko. Era berean, kezka azaldu du herriko hainbat gunetan gertatzen ari diren mugimenduengatik, esaterako, San Andres pasealekua, Sostoa, Ubitxa, Aizarna, Bolingua edo Errekatxu. Horrekin guztiarekin, urte askotarako baldintzatzen ari da herri-eredua; eskaera nahikorik izateke etxebizitza gehiagotan oinarritua

Otro asunto que preocupa a su grupo es el retraso en la redacción del nuevo Plan General de Ordenación Urbana; en concreto, para 2018 debería haberse redactado el diagnóstico, pero hasta la fecha no se ha presentado texto alguno y se pregunta por los motivos del gobierno municipal para dilatar tanto en el tiempo este asunto. Al mismo tiempo, muestra su preocupación por los movimientos que se están produciendo en difertentes zona de la ciudad como, por ejemplo, San Andres Pasealekua, Sostoa, Ubitxa, Aizarna, Bolingua o Errekatxu. Con todo ello, se está condicionando para muchos años el modelo de ciudad, un modelo basado en

dagoen eredu bat, espazio libre eta aisialdigune gutxiagokoa, eta berdegune eta espazio publiko gutxiagokoa. Hori guztia ikusita, jakin nahi du zein den gobernu-taldearen iritzia gaiari buruz.

más viviendas sin que exista demanda suficiente, menos espacios libres y de espacimiento, menos zonas verdes y espacios públicos. A la vista de todo ello, desea saber la opinión del equipo de gobierno al respecto.

Euskal Herria Bildu udal taldearen bozeramaleak galdetu du irisgarritasun-planari buruz; izan ere, aurrekontu-akordioak gaiari buruzko zuzenketa batzuk jasotzen ditu, baina berez eta izatez ez dago halako planik, eta ez da ahaztu behar urtean 600.000 euro direla eskailera mekanikoen gastua.

La portavoz del grupo municipal de Euskal Herria Bildu continúa su intervención preguntando por el plan de accesibildiad, ya que el acuerdo presupuestario contiene diversas enmiendas al respecto pero no existe un plan como tal, sin olvidar el gasto anual de 600.000 euros para el mantenimiento de las escaleras mecánicas.

Halaber, beti errepikatzen den gai bat aipatu du, alegia, Eibar dela Gipuzkoako langabezia-tasa altuena duen herria, baina arazo horri aurre egiteko, ez EAJ-PNV ez PSE-EE, biak batera Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian gobernuan egonik, ez dira gai izan Debabarrenean inbertsioak egiteko. Gogorarazi du bere taldeak berrindustrializazio-plan bat exijitu izan duela eskualderako eta galdetzen du erkidegoko exekutiboak zergatik ez dituen inbertsioak egiten Eibarren eta bai beste leku batzuetan. Egoera horri aurre egiteko, hitzarmen honen sinatzaileak ez dira kapaz izan Debegesa, Gipuzkoako Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta Udaleko ordezkariak

Así mismo, hace mención a un tema recurrente, como es que Eibar ostenta la tasa de desempleo más alta de Gipuzkoa, aunque frente a este problema ni EAJ-PNV ni PSE-EE, gobernando juntos tanto en el Gobierno Vasco como en la Diputación Foral de Gipuzkoa, han sido incapaces de ejecutar inversiones en Debabarrena. Recuerda que se grupo ha venido exigiendo un plan de reindustrialización de la comarca y se pregunta la razón por la que el ejecutivo auntonómico no lleva a cabo inversiones en Eibar que sí está desarrollando en otras zonas. Ante esta situación, los partidos políticos firmantes de este pacto no han sido capaces de reunir a

biltzeko eskualdeko egoera aztertzeko. Hori gertatzen den bitartean, Udaleko Garapen Ekonomikoaren sailak hartzen dituen neurriek ez dute arazoa konponduko.

representantes de Debegesa, Diputación Foral de Gipuzkoa, Gobierno Vasco y Ayuntamiento para analizar la situación de la comarca. Mientras esto sucede, las medidas que se adoptan desde el Departamento de Desarrollo Económico del Ayuntamiento no van a solucionar el problema

Beste gai bati helduz, Euskal Herria Bildu udal taldeak eskatzen du aztertzea zer ondorio izaten ari den auzotarrengan eta herriko komertzioan Otaola hiribidean gertatzen ari diren aldaketak. Kontuan hartu behar da azalera handiek sortzen duten lanpostu bakoitzeko 1,5 lanpostu suntsitzen direla herrian.

En otro orden de cosas, el grupo municipal de Euskal Herria Bildu reclama que se analicen las consecuencias que en el vecindario y en el comercio local provocan los cambios que se están produciendo en la avenida Otaola. Como dato a tener en cuenta, afirma que por cada puesto de trabajo que generan las grandes superficies comerciales se destruye 1,5 empleos en la ciudad.

Bilkura honetan luze eztabaidatutako beste gai bat Errebalgo proiektuarena da —gobernu-taldearen gestio ereduaren adibiderik garbiena—; horregatik eskatzen duen gauza bakarra da prozesu parte-hartzaile bat aurrera eramatea.

Otro tema del que se ha debatido ampliamente en este Pleno es el proyecto de Errebal -el ejemplo más claro del modelo de gestión del equipo de gobierno- razón por la que simplemente solicita que se lleve adelante el proceso participativo.

Denbora gutxi du, baina arretaz aztertu nahiko luke zein den Txonta, Matxaria edo Ubitxa bezalako auzoen egoera, eta galdetu zein den udal gobernuak erabiltzen duen irizpidea haietan egiten diren inbertsioak erabakitzeko.

Debido a lo limitado del tiempo del que dispone, le gustaría hablar con mayor detenimiento de la situación de barrios tales como Txonta, Matsaria o Ubitxa y preguntar por cuál es el criterio que utiliza el gobierno municipal para

decidir sobre las inversiones que se concretan en cada uno de ellos.

Gaiez aldatuz, bere ustez, gobernu-taldearen kultur politika hutsaren hurrengoa da eta salatu du ez duela gaitasunik kultur mahai bat eratzeko, izan ere, badirudi beldurra ematen diola herritarren ahalduntzeak. Ondorio horretara eramaten du Parte Hartzeari buruzko Ordenantzan dagoen paralisiak.

Cambiando de tema, califica de nula la política cultural del equipo de gobierno y denuncia su incapaciodad para convocar la mesa de la cultura, lo que da la sensación de que teme el empoderamiento de la ciudadanía. A esta conclusión le lleva también la parálisis existente en lo que a la Ordenanza de Participación se refiere.

**Lamarian Cobo andreak,** halaber, aipatu du Udalaren funtzionamendua hobetu beharra dagoela eta, zehatzago, ematen dituen zerbitzuak; kontu hori dela-eta, adierazi du azpikontratazio maila oso altua dela, eta horrek eragin dezakeela prekarietatea eta gabeziak egotea kalitatean. Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen du zerbitzu horiek publiko bihurtzeko plan bat. Baina herritarrengandik gertu egon nahi bada, ezinbestekoa da, aldi berean, behar diren bitartekoak jartzea, hala nola lanpostu berriak sortzea (besteak beste, Hirugarren Adineko teknikaria, Kirol teknikaria, Pegorako errefortzua); eta lanpostu horiek ez daude lortutako akordioan jasota.

La **Sra. Lamarian Cobo** también hace mención a la necesidad de mejorar el funcionamiento del Ayuntamiento y, en concreto, de sus servicios; a este respecto, señala que el nivel de subcontratación es muy alto, lo que puede acarrear precariedad y carencias en su calidad. Por todo ello, considera neceario un plan de publificación de esos servicios. Pero, si se quiere estar cerca de la ciudadanía resulta igualmente imprescindible contar con los recursos necesarios, tales como la creación de nuevos puestos de trabajo (Técnico/a de Tercera Edad, Técnico/a de Deportes, refuerzo de Pegora, entre otros), que no se incluyen en el acuerdo alcanzado.

Orobat, kritikatu du aurrekontu-proiektuak zenbateko garrantzitsu bat gordetzea inbertsioetarako, baina ez

También censura que el proyecto de presupuesto incluya una cantidad importante para inversiones, pero no se

egotea inolako proposamenik gastu soziala handitzeko. Aurrekontu-akordioan, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak zuzenketak baino ez ditu egiten gobernu-taldearen proposamenak handitu, areagotu edo indartzen dituztenak, baina ez du alternatibarik planteatzen. Gainera, berriz ere joan den jardunaldiari buruzko kontuei dagozkien zuzenketak agertzen dira, eta horrek berriztatze falta erakusten du.

plantee propuesta alguna para incrementar el gasto social. En el acuerdo prespuestario, el grupo municipal de Eibarko EAJ-PNV únicamente introduce enmiendas que amplian, aumentan o refuerzan las propuestas del equipo de gobierno, sin plantear alternativas. Además, aparecen de nuevo enmiendas correspondientes a las cuentas del pasado ejercicio, lo que denota falta de renovación.

Irisgarritasuna hobetzeko eta auzoak erdigunearekin lotzeko igogailuak jartzeari dagokionez, salatu du nola ematen zaion lehentasuna auzo bati edo besteri irisgarritasun-planak argi zehaztutako irizpideak izan barik.

Respecto a la instalación de ascensores que faciliten la accesibilidad y la comunicación de los barrios con el centro, cuestiona que se prioricen unas zona frente a otras sin contar con unos criterios definidos claramente por el plan de accesibilidad.

Amaitzeko, aipatu du etxebizitza tutelatuak izateko premia, bere taldeak 2015ean aurrekontuari eginiko zuzenketa baten bidez planteatu zuen bezala; gobernu-taldeak konpromisoa hartu zuen gai horretan esfortzu bat egiteko, baina orain arte ez da emaitza argirik ikusi. Halaber, eta Irabazi udal taldeak egin duen bezala, urte hartan etxegabeentzako aterpe bat egokitzea proposatu zuten, zeina orduan Gizarte Zerbitzuen Maparen definizioaren mende zegoen, garai hartan PSE-EE udal taldeak argudiatu zuen bezala.

Para finalizar, hace mención a la necesidad de contar con viviendas tuteladas, tal y como su grupo planteó en 2015 mediante una enmienda al presupuesto, obteniendo a cambio por parte del equipo de gobierno el compromiso de que se realizaría un esfuerzo en esta materia; compromiso, por otra parte, difícil de calibrar hasta el momento. Igualmente, y al igual que ha realizado el grupo municipal de Irabazi, propusieron en aquel año la habilitación de un refugio para transeúntes, que por aquel entonces dependía de la definición del Mapa de Servicios Sociales, tal y

como se excusó por aquel entonces el grupo municipal del PSE-EE.

Hitz batean, akordio bat dago Eibarko EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeen artean, azkenari aukera emango liokeena udal aurrekontua aurrera ateratzeko inolako arazorik izan gabe; aurrekontu bat izaera sozialeko ekarpenik gabe, nahiz eta adjektibo hori gobernu-taldearen alderdi politikoaren izenean sartuta egon, eta aurrekontu bat alderdi nazionalistak batere hobetzen ez duena.

En definitva, existe un acuerdo entre los grupos municipales de Eibarko EAJ-PNV y del PSE-EE, que permitirá a este último llevar hacia adelante el presupuesto municipal sin ningún problema; un prespuesto sin aportaciones de índole social, a pesar de que este adjetivo se incluya en la denominación del grupo político del equipo de gobierno, y sin que las enmiendas del grupo nacionalista lo mejoren lo más mínimo.

Hala, azaldutako arrazoiak kontuan hartuta, Euskal Herria Bildu udal taldearen ezezko botoa iragarri du.

Así, teniendo en cuenta las razones expuestas, anuncia el voto negativo del grupo municipal de Euskal Herria Bildu.

**Benítez Dávila jaunak** esan du gaur arratsaldean eztabaidatzen direla 2019an herrian aplikatuko diren udal aurrekontuak, agintaldi honen azkenak; horrek behartu egiten du gobernu-taldea bere programaren balantzea egitera eta betetze-maila baloratzera, azken udal hauteskundeetan eibartarrek gehiengo handi batez bozkatu zuten hauteskunde-programan oinarritua. Zentzu horretan, adierazi du betetze-maila ia erabatekoa dela; hauteskunde-programa jasotzen

El **Sr. Benítez Dávila** afirma que esta tarde se debaten los presupuestos municipales que se aplicarán en la ciudad en 2019, los últimos de este mandato, lo que sitúa al equipo de gobierno en la tesitura de hacer balance y valorar el grado de cumplimiento de su programa, que está basado en el programa electoral que refrendaron mayoritariamente los eibarreses en las últimas elecciones municipales. En este sentido, manifiesta que el grado de cumplimiento es

duten proiektuak edo amaituta daude, edo une honetan gauzatzen ari dira, edo aurrekontu hau aplikatuz eta garatuz lortuko da agintaldi honetan ezarritako helburuak betetzea.

Bere iritziz, azken urte hauek oso zailak izan dira, jasandako krisi sistemikoak eragotzi egin duelako nabarmen helburu batzuk lortzea. Administrazio guztiak balantzeak egiten ari dira benetako egoera ekonomikoari buruz, eta, 2018a amaitzear dagoela, datu makroekonomiko guztiek, hala nola 2019rako iragarpenek diote hobekuntza funtsezkoak somatzen direla ekonomia globalean (ikus foru-ogasunen diru-bilketaren datuak). Hala, adierazi du, 2018a ixtear, ratio ekonomikoak 2007ko krisia hasi baino lehenagokoen antzekoak direla. Baina datu horiek irakurketa ezberdinak dituzte jartzen garen aldearen arabera; beste era batera esanda, eskala txikiagoko ekonomien errealitateak, alegia, etxeetako ekonomiak —horiek baitira krisia gehien pairatu dutenak, soldaten murrizketa handiekin, eta, okerrago dena, enplegua galduz— erakusten digu familia askok jarraitzen duela depresio ekonomikoko testuinguru batean; horregatik, eta gure zerga-bilketako ahalmena txikiagoa izan arren, seigarren

prácticamente total, los proyectos que contienen el programa electoral están, o bien terminados, se están ejecutando en estos momentos o la aplicación y desarrollo de este presupuesto terminará con la consecución de los objetivos que se marcaron para el presente mandato.

En su opinión, los últimos años han sido muy complicados ya que la crisis sistémica sufrida ha dificultado sobremanera la consecución de algunos de sus objetivos. Todas las administraciones vienen haciendo balances sobre a la situación económica real, y todos los datos macroeconómicos al cierre del ejercicio 2018, así como las previsiones para 2019, indican que se aprecian mejoras sustanciales en la economía global (véanse los datos de recaudación de las haciendas forales). Así, indica que, al cierre de 2018, se ha llegado a ratios económicos similares a los habidos antes del inicio de la crisis en 2007. Pero estos datos tienen varias lecturas dependiendo del lado en que nos situemos; dicho de otra forma, la realidad de las economías a menor escala, esto es, las economías domésticas, que son las que más han sufrido la crisis con reducciones importantes de sueldos y, lo que es peor, con pérdida del empleo, nos demuestra que una parte de las mismas sigue inmersa en un contexto de

urtez jarraian, Udal Batzarrak onartu egin zuen tasak eta prezio publikoak izozteko proposamena.

depresión económica, motivo por el cual, y aún a costa de ver mermada nuestra capacidad recaudatoria, por sexto año consecutivo, el Pleno municipal aprobó su propuesta de congelación de tasas y precios públicos.

Zergak ez igo arren —bai ordea diru-bilketa— azpimarratzen du eszenatoki horretan kapaz izan direla aurreko urteetan baino austeritate gutxiagoko aurrekontu-proposamen bat egiteko eta jarraitzen dutela herrirako inbertsio garrantzitsuak egiteko asmoan; 2019an 8 milioi euro izango dira inbertsioetarako, eta horietatik 3 Errebalgo proiekturako, 2 milioi hiri-ingurunea hobetzeko eta 1,5 milioi herri osoan banatuta irisgarritasun-arloko hobekuntzarako. Gainera, eta iaz egin zen bezala, 800.000 euro bideratuko dira herritarren parte-hartze prozesuetatik eratorritako proposamenetarako.

A pesar de esta no subida de impuestos, aunque sí de recaudación, destaca que en este escenario han sido capaces de presentar una propuesta de presupuestos menos austera que en años anteriores y continúan en la senda de realizar importantes inversiones para mejoras en la ciudad; en 2019 se dispondrá de 8 millones de euros para inversiones de los cuales 3 millones estarán destinados al proyecto de Errebal, 2 millones para las mejoras de entornos urbanos y 1,5 millones para mejoras a efectuar en materia de accesibilidad repartidas a lo largo y ancho de la ciudad. Además, y al igual que el pasado año, se dedicarán 800.000 euros para ejecutar propuestas derivadas de los procesos de participación ciudadana.

PSE-EE udal taldearen bozeramaleak nabarmendu nahi du aurrekontu honek izaera sozial handia duela, inoiz baino beharrezkoagoa gaur egun; izan ere, ekonomia handien datuak hobetu arren, krisiak Eibarko familia askori eragiten segitzen du. Horren haritik, beste

El portavoz del grupo municipal del PSE-EE desea destacar que este presupuesto presenta un importantísimo componente social, un elemento más necesario que nunca ya que, aunque los datos de las grandes economías mejoran, la crisis sigue afectando en diferentes

behin ere gogorarazi nahi Udal honetan segitzen dutela jasotzen eta osatzen beste erakunde batzuek bete beharko lituzketen eskariak, entitate horiek ez baitira betetzen ari egoerak exijitzen duen sakontasunarekin eta zenbatekoekin. Halaber, balioan jarri behar da, Gizarte-Zerbitzuen Zuzendarien eta Kudeatzaileen Espainiako Elkarteak egin duen legez, Eibarren liderrak garela gizarte-laguntzetan, laugarren Udala baikara premia horietarako baliabideak bideratzen dituena biztanleko, Espainiako ehunka toki-erakundeen artean.

Nolanahi ere, azpimarratzen du esfortzurik handiena izan behar dela familia askok jasaten duen lan faltari aurre egitea; eta helburu horretan dihardute, nahiz eta beste batzuk izan eskumena duten administrazioak, lehen adierazi duen bezala.

Gobernu-taldeak balioan jarri nahi du Ekonomia Garapenaren sailak egindako lan eskerga. Arlo horrekin lotuta, gogorarazi du azterketa zehatz bat egin zela eskualdeko langabeziaren egoerari buruz eta udalerri bakoitzeko langabeen profilari buruz, horrela, enplegagarritasun-baldintzak hobetzeko programak ezarri ahal izateko. Azpimarratu du alde

grados a muchas familias eibarresas. A este respecto, recuerda una vez más que desde este Ayuntamiento se siguen atendiendo y complementando demandas que deberían cubrir otras instituciones, sin que lo estén haciendo en toda la extensión y cuantías que la situación requiere. Igualmente, es importante poner en valor, como se ha hecho hecho desde la Asociación Estatal de Directores y Gerentes de Servicios Sociales, que en Eibar somos líderes en las coberturas sociales a nuestros ciudadanos, ya que somos el cuarto municipio que más recursos por habitante destina a estas necesidades de entre los cientos de entidades locales de España

No obstante, destaca que el mayor esfuerzo debe ir dirigido a intentar paliar la falta de trabajo que sufre muchas familias; objetivo que les ocupa y preocupa, a pesar, como ha indicado anteriormente, de ser otras las administraciones competentes.

Desde el equipo de gobierno, se pone en valor el ingente trabajo realizado por el Departamento de Desarrollo Económico. En relación con esta materia, recuerda que en su día se incidió y participó en el minucioso estudio sobre el paro en la comarca y el perfil de las personas desempleadas de cada municipio para poder establecer así

horretatik Eibarko Udala oso aktiboa dela eta langabeentzako programak bultzatu dituela —eta jarraituko duela bultzatzen—, hainbat ardatz oinarri hartuz: enplegua, ekintzailetza, industria-lehiakortasuna, azpiegiturak, bokazio zientifikoen sustapena, landa-mundua, merkataritza, turismoa eta kultura.

programas que mejoren las condiciones de empleabilidad. Destaca, que el Ayuntamiento de Eibar es muy activo en este sentido y que ha promovido y seguirá impulsando programas para personas desempleadas basados en diferentes ejes: empleo, emprendimiento, competitividad industrial, infraestructuras, fomento de vocaciones científicas, mundo rural, comercio, turismo y cultura.

Jarraian, errepasatu egin ditu aurrekontu-proiektuak hainbat arlotan dituen neurri nagusiak. Lehenik, ekintza-bloke batzuk diseinatu dira enplegagarritasuna hobetzeko eta, eredu gisa, gogorarazi du iaz zortzi trebakuntza-programa jarri zirela martxan, dozena bat espezialitate baino gehiago bildu zituztenak; guztira 400 pertsonak parte hartu dute eta % 50ek gora lana topatu dute. Aurtengo jardunaldian, trebakuntza-ibilbide hauek toki-erakundeentzako deialdien barruan joango dira Europako Gizarte Funtsak ko-finantzatuak, gizarteratze, pobreziaren eta bazterketaren aurkako proiektuetan. Halaber, Garapen Ekonomikoaren sailaren bidez, Udalbatzara eraman zen 756.000 euroko aurrekontu-kontsignazio baten proposamena, hurrengo hiru urteetan, beste bost trebakuntza-programa egiteko,

A continuación, repasa las principales medidas que contiene el proyecto presupuestario en diferentes materias. En primer lugar, se han diseñado diferentes bloques de acciones para la mejora de la empleabilidad, y, a modo de ejemplo recuerda que el pasado año se pusieron en marcha ocho programas formativos que abarcaron más de una docena de especialidades, superando las 400 personas con un resultado de más del 50% de inserción laboral. En el presente ejercicio, se impulsarán los itinerarios de carácter formativo, dentro de las convocatorias destinadas a entidades locales, cofinanciados con ayudas del Fondo Social Europeo en proyectos en el ámbito de la inclusión social, lucha contra la pobreza y la discriminación. Así mismo, a través del Departamento de Desarrollo Económico, se elevó al Pleno una

eta haietatik bi ikastaro 2019an jarriko dira martxan.

propuesta de consignación presupuestaria de 756.000 euros para la realización de otros cinco programas de formación para los próximos tres años, de los cuales dos cursos se podrán en marcha en 2019.

Laburpen gisa, adierazi du 2018an 1.100.000 euro inbertitu zirela langileen egoera eta bizi-baldintzak hobetzen eta konpromisoa hartu dela beste sei enplegu-programa martxan jartzeko hurrengo hiru urteotan, 800.000 eurotik gorako inbertsio bat eginda. Orobat, nabarmendu du jarraituko dutela eibartarrek lan arloan duten premiei —beste administrazio batzuek betetzen ez dituztenak— erantzuteko ekimenak, programak eta egitasmoak sustatzen eta bultzatzen. 2019an ere "Debabarreneko gizarteratzearen aldeko Sarea"-rekin bat egingo da, eta modu aktiboan lan egingo da zailtasun handiak dituzten pertsonei arreta emateko, beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eta giza bitartekoak jarriz.

A modo de resumen, expone que en 2018 se invirtieron 1.100.000 euros en mejorar la situación y condiciones de vida de los trabajadores y se ha adquirido el compromiso de la puesta en marcha de otros seis programas de empleo en los próximos tres años por un importe superior a los 800.000 euros. Igualmente, destaca que continuarán impulsando y promoviendo iniciativas, programas y proyectos para atender las necesidades de los eibarreses en materia de empleo que no cubren otras administraciones. En 2019 también se producirá la adhesión a la "Red por la inclusión sociolaboral de Debabarrena" y se trabajará de manera activa en la atención a personas cuya situación presenta mayores dificultades, destinando los recursos económicos y humanos necesarios.

Ekintzailetza dela-eta, azpimarratu du lortu dela Eibarrek ekintzaileei laguntzeko ekosistema oso bat izatea, ekintzaile txikiak babesteko edo teknologian berritzaile eta intentsiboak diren enpresak sortzeko. Ekosistema hori, Udalak, Debegesak, Tekniker-IK4k,

En lo que al emprendimiento se refiere, destaca que se ha conseguido que Eibar cuente con un completo ecosistema de apoyo al emprendimiento que incorpora el apoyo a los pequeños emprendedores o la creación de empresas innovadoras e intensivas en

Armeria Eskolak, UPV/EHUk eta BIC Gipuzkoa Berrilanek osatzen dute eta lehiakortasun handia sortzen ari dira Eibarrentzat, langileentzat eta enpresentzat.

Arlo horretan, mugarri garrantzitsuenak hauexek dira:

- Startup-en Nazioarteko Foroa, azaroan egin zena, eta Reyes Maroto Industria, Merkataritza eta Turismoko ministroak inauguratu zuena, gogoeta zein eztabaidarako gune bihurtu da eta ekintzaileen konexiorako eta trakziorako topaleku.

- "Eibar Business Market" ekintzaileen arteko topagune bihurtu da bai estatu mailan bai nazioartean.
- Toribio Etxebarria sariak.
- Enpresak sortzeko zuzeneko dirulaguntzak.
- Ekintzailetzaren gida.
- Ikasenpresa Azoka, joan den ostegunean egin zena: 380 proiektu eta 2.000 ikasle baino gehiago.

Horren guztiaren harira, 2019an, gobernu-taldeak erronkatzat hartu du gizarteratzeko enpresak sortzea

tecnología. Este ecosistema formado por el Ayuntamiento, Debegesa, Tekniker-IK4, Armeria Eskola, UPV/EHU y BIC Gipuzkoa Berrilan está generando una gran ventaja competitiva para Eibar, sus trabajadores y empresas.

En este ámbito, señala como hitos más importantes los siguientes:

- Foro Internacional de Startups, celebrado en noviembre, cuyo acto inaugural corrió a cargo de la Ministra de Industria, Comercio y Turismo, Dña. Reyes Maroto, y que se ha conformado como espacio de reflexión y debate, conexión y tracción del talento emprendedor.
- "Eibar Business Market", se ha convertido en un punto de conexión nacional e internacional entre emprendedores.
- Premios Toribio Echevarria.
- Subvenciones directas a la creación de empresas.
- La guía del emprendimiento.
- Feria Ikasenpresa, celebrada el pasado jueves, dando cita en Eibar 380 proyectos con la asistencia de más de 2.000 alumnos.

Al hilo de todo ello, en 2019, el equipo de gobierno se plantea como reto el impulso a la creación de empresas de

bultzatzea, pobreziaren eta bazterketaren aurkako borrokan ekintzailetza-tresna gisa.

Azpimarratu nahi duen beste arlo bat industria-lehiakortasuna da, Garapen Ekonomikoaren sailaren eta herriaren ardatz nagusienetako bat. Helburu nagusia da gure enpresei beren negozio-ereduak finkatzen laguntzea eta produktu edo zerbitzu berriak sortzea bi plan martxan jarriz:

1.- Pymeak plana, 20 behargin baino gutxiagoko enpresentzat; urte anitzekoa da, lehiakortasuna hobetzea du xede eta Eibarko enpresa guztiei dago irekia.

2.- Plan Integrala, 2019an martxan jarria Eibarko sustapen eta dinamizazio ekonomikorako, xedetzat duena enpresen jarduera indartzea, enplegua sortzea eta gure herriari teknologia eta ekonomia digitalaren arloan laguntzea.

Oinarrizkoa da halaber urtero egiten den erronka teknologikoko programa, 50 langile baino gutxiagoko enpresentzat, xede duena enpresa-ekintzak aztertu eta objektibatzea, inbertsioa sustatu eta berrikuntza bultzatzeko.

inserción social como instrumento de emprendimiento para la lucha contra la pobreza y la exclusión.

Otra materia a destacar sería la competitividad industrial, que se erige en uno de los ejes fundamentales del Departamento de Desarrollo Económico y de la ciudad. El objetivo no es otro que ayudar a nuestras empresas a consolidar sus modelos de negocio y la mejora o creación de nuevos productos o servicios a través de dos planes:

1.- Plan Pymes, para empresas de menos de 20 trabajadores, de carácter plurianual con el objetivo de mejorar la competitividad y abierto a la participación de todas las empresas eibarresas.

2.- Plan Integral, puesto en marcha este año 2019 para la promoción y dinamización económica de Eibar, con el objetivo de fortalecer la actividad empresarial y la generación de empleo y que ayude a nuestra ciudad en el campo de la tecnología y la economía digital.

Básico es también el programa anual de retos tecnológicos para empresas menores de 50 trabajadores con el objetivo de estudiar y objetivar acciones empresariales para fomentar la inversión y potenciar la innovación.

Jarraitu du esaten Eibarko Udalak lankidetzan jardun duela "Basque Precision Technology District" izeneko marka komertziala garatzen, zeina eskualdeko ekonomiaren hazkunde jasangarria sustatzeko bokazioz sortu den. Proiektu horren erronka zera da: Debabarreneko eskualdea berriz ere enpresa ikuspegitik lurralde erakargarri gisa kokatzea.

Continúa su exposición, relatando que el Ayuntamiento de Eibar ha colaborado y apoyado el desarrollo de una marca comercial denominada "Basque Precision Tenhnology District", creada con la clara vocación de impulsar el crecimiento sostenible de la economía comarcal. El reto de este proyecto es volver a posicionar a la comarca de Debabarrena como un territorio empresarialmente atractivo.

2018an eta 2019aren zati batean, Debegesari esleitutako aurrekontuaren barruan, industria-enpresen mapeo bat egin da, barruan sartuz ahalmen teknologikoak eta haien ekoizpen-bitartekoak. Laster, datuak Basque Precision Technology District-en web-orrian eskegiko dira.

Durante 2018 y parte de 2019, dentro del presupuesto asignado a Debegesa, se ha elaborado un mapeo de las empresas industriales, incluyendo las capacidades tecnológicas y los medios productivos de las mismas. En breve los datos se colgaran en la página web de Basque Precision Technology District.

Hala, aurten sustatuko diren proiektu-pilotu berriez gain, azpimarratu nahi du, lehiakortasunaren arloan, halaber, Espezializazio Adimentsuaren Euskal Estrategiaren barruan, eta kanpo-laguntzei eta Garapen Ekonomikoaren sailaren beraren ahaleginari esker, lau lerro identifikatu direla herriaren dibertsifikaziorako, alegia, jarduera ekonomikoko lau nitxo, zeinen alde egiten den apustu gure ekoizpen-ehunaren dibertsifikazio-"hazi" bezala, hau da:

Así, además de los nuevos proyectos pilotos que se impulsarán a lo largo de este año, desea subrayar también en materia de competitividad que, en el marco de la Estrategia Vasca de Especialización Inteligente, y gracias a los apoyos externos y al desempeño del propio Departamento de Desarrollo Económico, se han identificado cuatro líneas de diversificación para la ciudad, es decir, cuatro nichos de actividad económica sobre los que Eibar apuesta como "semillas" de la diversificación de nuestro tejido productivo; a saber:

1.- Doitasunezko mekanika.

2.- Robotika.

3.- Energiak.

4.- Kirola.

Arrazoi horrengatik, Udalak parte hartu nahi izan du profesionalen arteko lankidetza-foroan (Lehiagune); foroak polo teknologiko eta enpresariala izan nahi du, produktu eta zerbitzu berezi eta berritzaileak sortzeko, eskualdearen hazkundea eta industria-lehiakortasuna bideratzeko asmoz. Horretarako, beharrezkoa da halaber robotikan aurrera egiten jarraitzea; arlo horretan, adierazi du egin dela dagoeneko kontzeptualizazio-txostena, eta aurten Debegesa bidez eta hari bideratutako diru-partidaren barruan, prospekzio bat egin dela eskualdeko 20-100 langileko enpresetan, diagnostiko horren arabera, adieraz dezaten zein den estrategia eta ekintza-lerroa gure industria-ehunera zuzendua.

Bestalde, azpiegiturak garrantzi handiko kapitulu bat dira; Sailaren eta, hedaduraz, Udalaren zeregina beti izan da eta izango da soluzioak bilatzea Eibarko industria-lurzoruaren arazoari, administrazio eskudunei soluzioak bila ditzaten eskatuz, hala nola Erisonoko poligonoaren bigarren fasea (oraindik hasi

1.- Mecánica de precisión.

2.- Robótica.

3.- Energías.

4.- Deporte.

Por esta razón, el Ayuntamiento ha querido tomar parte en el foro de colaboración interprofesional (Lehiagune) foro que aspira en convertirse en un polo tecnológico/empresarial para la creación de productos y servicios singulares e innovadores que faciliten el crecimiento y competitividad industrial de la comarca. Para eso, también es necesario seguir avanzando en robótica; en este ámbito, indica que si ya se ha realizado el informe de conceptualización, este año a través de Debegesa y dentro de la asignación económica que se destina a la Agencia de Desarrollo, se ha llevado a cabo una prospección en las empresas de la comarca de 20 a 100 trabajadores para que, de acuerdo con este diagnóstico, indiquen la estrategia y líneas de actuación dirigidas a nuestro tejido industrial.

Por otra parte, las infraestructuras representan un capítulo de especial relevancia; la actuación del Departamento, y por extensión del Ayuntamiento, ha sido y será la busca de soluciones a la problemática de suelo industrial en Eibar, instando a las administraciones competentes a la

gabe dagoena), espazio berrien kokapena eskatzea inkubagailu teknologiko berri bat sortzeko, edo enpresen haztegi berri bat, edo administrazio eskudunei eskatzea babes dezatela ekonomikoki Matxarian hutsik dauden pabiloiak okupatzea, edo eskualdeko inbertsio publikoen banaketa justuago eta orekatuago bat lortzea, hala, erakunde horiek Eibarrekiko duten arretarik eza arintzeko.

búsqueda de soluciones, como es el caso de la aún no comenzada segunda fase del polígono de Erisono, la solicitud de ubicación de nuevos espacios para la creación de una nueva incubadora tecnológica o un nuevo semillero de empresas o la petición a las administraciones competentes para que también apoyen económicamente la ocupación de los pabellones vacíos existentes en Matxaria, con conseguir un reparto más justo y equilibrado de las inversiones públicas en el territorio que minore así la situación de desatención hacia Eibar por parte de estas instituciones.

Bokazio zientifikoak sustatu asmoz, eta industria-ingurunea eraldatzeko beharraz jakitun, borondatea adierazten du arreta berezia jartzeko STEM bokazioei, gure gazteen pentsamendu zientifikoa eta teknikoa suspertze aldera. Testuinguru horretan, gogorarazi du Eibarko Udala lehenengoetarikoa izan zela halako ekimenak bultzatzen, eta 2019rako dauden programei eduki gehiago emango zaiela eta anbizio handiagoko ekimen berriak sartuko direla, esaterako, Eibartech proiektua, teknologien integraziorako espazio edo gune bat sortzean datzana.

Con el fin de fomentar las vocaciones científicas, y conscientes de la necesidad de transformar nuestro entorno industrial, manifiesta la voluntad de hacer hincapié en el fomento de las vocaciones STEM, para estimular el pensamiento científico y técnico de nuestros jóvenes. En este contexto, recuerda que el Ayuntamiento de Eibar fue de los primeros en impulsar este tipo de iniciativas y para este 2019 se insistirá en los programas existentes, dotándolos de mayor contenido y con nuevas iniciativas de mayor alcance, como es el proyecto Eibartech, que consistirá en crear un espacio o área de integración de tecnologías.

Beste gai batera pasatuz, azpimarratu nahi du Debemenekin batera, jarraituko dutela lanean 2015/2020 aldirako Debabarreneko Landa Garapenerako Plana oinarri hartuta:

1.- Bertako produktuak sustatzea, Baserrikoa proiektuaren bidez.
2.- Eibartarren sentsibilizazio-maila areagotzea nekazaritzaren eta baserri-munduaren garrantziaz, Debarroa, Slow Food eta Landatur programen bidez.

Halaber, argi laga nahi du aurrekontu hauek jarraituko dutela indartzen Eibarko merkataritzaren posizioa eskualdeko erreferente gisa eta udalerriaren zentralitate komertziala babestuko dutela. 2019an jarraituko dute Percoa lan-ildotzat hartzen honako alderdi hauek garatuz:

- Hiri-inguruneak hobetzea inbertsio handiak eginez.
- Kontsumoa zuzenean babestea, bono eta dirulaguntza bidezko kanpainekin: 4.300 bizilagun baino gehiagok parte hartu dute eta zuzeneko inpaktua Eibarko merkataritzan 363.000 eurotik gorakoa izan da.

En otro orden de cosas, resalta que, en colaboración con Debemen, continuarán trabajando en base al Plan de Desarrollo Rural de Debabarrena 2015/2020; concretamente, en dos líneas de actuación.

1.- Impulso de productos locales, a través del proyecto Baserrikoa.
2.- El fortalecimiento del grado de sensibilización de los eibarreses sobre la importancia de la agricultura y el medio rural a través de los programas Debarroa, Slow Food y Landatur.

Así mismo, desea dejar constancia de que estos presupuestos seguirán fomentado la posición del comercio eibarrés como referente comarcal y la protección de la centralidad comercial del municipio. En 2019 seguirán tomando como línea de trabajo el Perco en el desarrollo de los siguientes apartados:

- Mejora de entornos urbanos, con importantes inversiones.
- Apoyo directo al consumo, con campañas de bonos y ayudas, de las que se han beneficiado más de 4300 ciudadanos y su impacto directo en el comercio eibarrés ha superado los 363000 euros.

- Merkataritzaren profesionaltasuna sustatzea, lanpostuen eskaera kudeatuz.

- Belaunaldi-erreleboa sustatzen laguntzea.
- Merkataritzaren kalitatea sustatzea, Singular Dendak edo Konekta bezalako programak beste urte batez luzatuz.
- Merkataritzaren dinamizazioa, 2019an zehar hainbat jarduera antolatuz (animazioa, kale-dinamizazioa, Azokak, Txiki Park, eta abar).

Azkenik, azpimarratu nahi du gobernu-taldeak apustu egiten duela Eibarko turismoa sustatzearen alde, izan ere, sektorea dagoeneko Gipuzkoako BPGaren % 7 da. Bere iritziz, sektore horretan posizionamendu propioa eduki behar da, baina 2016-2020 aldirako Debabarreneko turismo-planarekin lerrokatuz; eskualdeko plan horrek zerbitzu eta negozio-nitxo hori areagotzea du xede, eta bertan egon eta parte hartu beharra dugu, eta, jakina, baita ekarpenak egin ere.

PSE-EE udal taldearen bozeramaleak esan du 2019ko urtarrileko langabezia-datuek berretsi egiten dutela

- Impulsar la profesionalización del comercio, gestionando la demanda de puestos de trabajo.
- Ayudar al fomento del relevo generacional.
- Fomento de la calidad comercial, prorrogando un año más programas como Singular Dendak o Konekta.

- Dinamización comercial con múltiples y variadas actividades a lo largo de todo el año 2019 (Animación, dinamización callejera, Celebraciones de Ferias, Txiki Park, etc.).

Por último, destaca la apuesta del equipo de gobierno por la promoción del turismo en Eibar, sector que ya supone el 7% de PIB en Gipuzkoa. A su entender, se trata de un sector en el que se debe tener un posicionamiento propio pero alineándonos con el plan turístico de Debabarrena 2016-2020 que busca incrementar este nicho de servicio y negocio en el cual debemos estar y participar, y desde luego aportar.

El portavoz del grupo municipal del PSE-EE afirma que los datos de la tasa de paro en enero de 2019 corroboran el

udaleko gobernuaren esfortzua; izan ere, 2015. urteaz geroztik jaitsi egin da % 30 (agintaldiaren hasiera), 2.321 langabe izatetik azken datuaren 1.630 izatera pasatuz.

esfuerzo del gobierno local al haber descendido un 30% desde el año 2015 (inicio del mandato,) pasando de 2321 personas desempleadas a las 1630 del último dato contrastado.

Gai horretan, bere asmoa ez da pozaren edo konplazentziaren itxurak egitea, badakielako onartu ezin diren zifrak ditugula helburutzat baditugu justizia soziala eta ekitatea.

En este asunto, su intención no es aparentar satisfacción o complacencia, ya que es consciente de que nos encontramos en cifras de paro inasumibles por una sociedad que tenga como objetivos la justicia social y la equidad.

Bere iritziz, politikak balio behar du herritarren arazoei soluzioak emateko eta horretarako egin dira 39.007.467,54 euroko aurrekontuak, 44.168.102,96 euro, aurrekontu finkatuaren kopurua kontuan hartuz gero. Adierazi du Aurrekontuei laguntzen dien Alkatetzaren Memorian arrazoituta dagoela partida horietako bakoitza, bai sarreren egoera, bai gastuen egoera.

En su opinión, la política debe servir para dar soluciones a los problemas de los ciudadanos y para ello se han elaborado unos presupuestos que asciendenа 39.007.467,54 euros, 44.168.102,96 euros si se toma la cifra del presupuesto consolidado. Indica que en la memoria de Alcaldía que acompaña las cuentas, está razonada cada una de las partidas, tanto del estado de ingresos como las partidas del estado de los gastos.

Bere interbentzioari amaiera emateko, nabarmendu egin du aurrekontu-egonkortasunaren helburuak ez betetzeari buruzko txostena eta bai jasangarritasun finantzarioaren txostena betetzea. Hala, lehenengoak dio gure zor-maila % 17,87koa dela, zenbateko txikia kontuan

Finaliza su intervención, destacando el informe sobre el no cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y el sí cumplimiento del informe de sostenibilidad financiera. Así, el primero indica que nuestro endeudamiento es del 17,87%, cifra muy moderada, teniendo

hartuta Foru Aldundiak 2019rako % 72rainoko iristen uzten duela.

en cuenta que la Diputación Foral de Gipuzkoa permite llegar hasta el 72% en 2019.

**Agirre Unceta andreak** , Euskal Herria Bildu eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeetako bozeramaleek azpimarratu duten ildotik, hainbat proiektu aipatu nahi ditu agintaldi honetan proposatu bai baina ez direnak gauzatu. Zehatzago, aipatu du abandonatuta dauden lonja eta pabiloiak behin berriztatuta parking moduan erabiltzeko premia; gune degradatuak berreskuratzea, hala nola Matxaria, Arane, Otaola, Barrena eta Iburrerreka; soluzioak bilatzea Fermin Calbeton 17, Arragueta 17-21 eta Ubitxa 8 kaleetako gune batzuetan, gertatzen diren zirkulazio-zailtasunengatik; Mekolako bidea eta Ardantzako zatia handitzea Arratebideraino, oinezkoen eta ibilgailuak oso espazio estu eta arriskutsuan ibili behar dutelako; Ospitaleko aldameneko lursaila desjabetzea parke txiki bat egiteko gaixo eta senideentzat eta lur azpiko parking bat egitea; erraztea oinezkoen ibilbidea Errebalen, funtzio anitzeko eraikinaren obrak egin bitartean; espaloiak eta asfaltatze-lanak Murrategi auzoan; hiri-ortuak Milafloresen Udalari dohaintzan emandako lursailetan; Arrateko igoeran

La **Sra. Aguirre Unceta** desea referirse a diversos proyectos propuestos a lo largo de este mandato pero que no se han llevado a cabo, en la línea de lo apuntado por los portavoces de los grupos municipales de Euskal Herria Bildu y Eibarko EAJ-PNV. En concreto, hace mención a la necesidad de destinar como parking u otro uso las lonjas y pabellones abandonados una vez rehabilitados; recuperación de zonas deterioradas como son Matxaria, Arane, Otaola, Barrena y Iburerreka; soluciones en puntos de las calles Fermín Calbetón, 17, Arragueta 17-21 y Ubitxa, 8 debido a las dificultades de tránsito que se producen; ampliación del camino de Mekola con la intersección con la calle Ardantza hacia la carretera de Arrate, por la connivencia existente entre peatones y vehículos en un espacio estrecho y peligroso; la expropiación del terreno lateral del Hospital con el fin de crear un pequeño parque para pacientes y familiares y un parking subterráneo; facilitar el paso peatonal en Errebal durante la duración de las obras del

Milafloresburuan dagoen parkea konpontzea; Berdintasunaren pasealekuaren eta Arratebidearen arteko igogailuak; Itzio-Institutua lotzea Milafloreseraino, bidegorri bat eginez Aldatze-Itzio proiektuari lotua.

edificio polivalente; aceras y asfaltados en el barrio de Murrategi; huertos urbanos en parte de los terrenos donados al Ayuntamiento en Milaflores; arreglo del parque en la subida a Arrate en Milaflores Buru; ascensores entre Paseo de la Igualdad y Arrate Bide; unión de Itzio-Instituto con subida a Milaflores a través de un bidegorri conectado al nuevo proyecto Aldatze-Itzio.

Hitz batean, eskatzen du kontuan izatea proposamen horiek edo, gutxienez, arrazoitu dadila zergatik baztertzen diren.

En definitiva, solicita que se tengan en cuenta estas propuestas o, al menos, se expliquen las razones por las que se descartan.

**Mendicute Rodríguez jaunak** harridura adierazi du; izan ere, oposizioaren gainerako taldeek egindako diagnostikoa partekatuta ere, bere taldeari gobernu-taldearen tratamendu berbera ematen zaio.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** muestra su sorpresa por el hecho de que, compartiendo el diagnóstico realizado por los demás grupos de la oposición, a la par se concede a su grupo el mismo tratamiento que al equipo de gobierno.

Irabazi udal taldearen bozeramaleak adierazitakoari dagokionez, azpimarratu du aurrekontu-akordioan jasotzen dela Errebal kaleko oinezkoen zirkulazioa hobetzeko alternatibak lantzeko azterketa bat egitea, Obra Batzorde Aholkularian aurkeztuko dena.

Respecto a lo apuntado por la portavoz del grupo municipal de Irabazi, destaca que en el acuerdo presupuestario se recoge la realización de un estudio de alternativas para mejorar provisionalmente el tránsito peatonal de la calle Errebal que será presentado en la Comisión Asesora de Obras.

Jarraian, hizpide izan du Euskal Herria Bildu udal taldearen bozeramalearen interbentzioa; eta adierazi

A continuación se refiere a la intervención de la portavoz del grupo municipal de Euskal Herria Bildu para

du funtsean bat datozela herriaren egoeraren azterketan, baina, aldi berean, bere buruari galdetzen dio 2016ko jardunaldiko aurrekontuak 2019koak baino eduki sozial gehiago izan ote zuen talde horrek gobernu-taldearekin lortu zuen akordioaren eraginez. Zentzu horretan, bidezkoak iruditzen zaizkio lortu izan dituzten lorpenak, talde guztiek eskubidea baitute zuzenketak sartzeko herritarren premiei erantzun nahian.

mostrar su coincidencia con el análisis del estado de la ciudad, pero, al mismo tiempo, se pregunta si el acuerdo al que llegó ese grupo con el equipo de gobierno hizo que el presupuesto del ejercicio 2016 tuviera un contenido más social que el de 2019. En este sentido, le parecen correctos los logros que haya podido conseguir, pues todos los grupos se encuentran legitimados para intentar introducir las enmiendas que den respuesta a las necesidades de la ciudadanía.

Nolanahi ere, berak ordezkatzen duen PNV alderdiaren estiloa ez da aurrekontua ez exekutatzea, baizik eta aurrekontua onartzen saiatzea eta zorrotzak izatea exekuzioan, azken hori gobernu-taldeari dagokion zeregina izanik.

No obstante, el estilo del grupo al que representa no pasa por la no ejecución del presupuesto, sino más bien por intentar su aprobación y ser exigentes en su ejecución, labor que corresponde al equipo de gobierno.

Halaber, bat dator Hirigintza Antolaketaren Plan Nagusiaren egoerari buruz egindako diagnostikoarekin, baina zehaztu du, esaterako, Bolinguako hirigintza-eragiketa onartzea ez dagoela udal aurrekontuaren mende, eta gainera bere taldea proiektu horren aurka dagoela.

También coincide con el diagnóstico realizado sobre la situación del Plan General de Ordenación Urbana, pero puntualiza que, por ejemplo, la aprobación de la operación urbanística de Bolingua, a la que su grupo se opone, no depende del presupuesto municipal.

Lehen sektoreari dagokionez, azpimarratu du zuzenketa bat sartu dutela baserri-bideak txukuntzeko partida berreskuratzeko, izan ere, PSE-EE udal taldeak ezabatu egin zuen partida hori; eta gogorarazi du baztertu egin zela bere

